

Sorkunde
Ondarroa, Bizkaia

Aurkibidea

Biografia

Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zueneko da grabazio hau.

Zintak

OND-040

- **Proiektua:** Berriz 1936 gogoratzen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Maite
- **Data:** 2007-11-09
- **Iraupena:** 17 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Emalea:** Arrizabalaga, Maite

Pasarteak

1. Saturrarango kartzelara jatekoa eramatera

- **Erref:** OND-040/004
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:05:53. **Bukatu:** 00:09:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Benantzi Saturrarango kartzelan egon zen hiru urtez eta irten zenean, lagun bat eta ahizpa neskame zituen, haiei bisita egitera joan zen. Sorkunde kartzelara joaten zen eguenetan Benantziri jatekoa eramatera eta ama igandeetan. Gogoan du Benantzirekin paseoa ibili izana ere.</p>

Transkripzioa

[...]

- Batez be horrek kartzelan egon zanian eta... Sorkunde zara, ezta?
- Sorkunde: Bai, ze beran alabi zanetik Maria Concepcion, ba, San Fermin bezperan, ipini ostan /ipiniztan/, ba, Sorkunde, neure ama besutaku bera. Eskerrak Sorkunde ipini ostan /ipiniztan/, bestelan Fermina ipiniko osten ta. San Fermin bezperaku na ta. Eta, ba, kartzelan egon zan, ba, nik ez dakit /eztai/ pa hiru urtin-edo eon zan, hiru bat urte edo. Eta esan dotsut /esatzut/, berak urten ebanin, beran lagunai eruten gentsan, berak gehixen e... lagune bat baiño gehixa eukiko eban, baiñe gehixen eukana zan asturiani, Dolores Carpintero.
- Ta gero be joaten zan hanguet gaizak erueten eta...
- S.: Zein? geu? Bai, geure ama.
- Bera be bai.
- S.: Ez, bera ez. Berak kartzelatik urten ebanin, ba, lehen esaten neuana, ba, eukan lagune krixara hantxe, Ondarrun, neu jaixo orduko. Eta, ba, aizti be bai eukan krixara. Eukan Ondarrun ha lagune. Ta eukan aizti Bartzelonan. Ta gero hona be etorri zan, kontixu, ba, diru-edo nahi eban, itxuri. Ta gero eon zan geurin, eta gero jun zan aitziana Bartzelona. Eta aitziaz hantxe ba... ez dakit /eztai/ nik.
- Hara jun zan Benantzi, e?
- S.: Bai, ta Bartzelonan eon zan. Kartzelatik urten ta, ba, handik ez dakit ba /eztaipa/, ba [hillak] edo urti edo, ez dakit /eztai/ zemat.
- Laguna: Zati baten bai.
- S.: Eon zan. Ta ha han euan bittartin, gure ama berriz ein zan ezkondu.
- Aaaaa, eta horregaitik e... gero hainbeste [...] eukin zenduzan barriro beste...
- S.: Eeeeeee, bueno, bai beste... halaku, bai.
- Laguna: Beste biximodo bat.
- S.: Baiñe zin harek, harek zin aitte baxerrinak. Eta...
- Eta zer kontatzen eban Benantzik kartzelan egon zan sasoi? ze zuek jun eitten ziñien...
- S.: Ba, eee... ia zelan gazen ta "zelan za?" ta "ondo" ta ze esango oskun ba? Ume mokuk giñan ta.
- Ta barruraiño sartzen ziñien zuek?
- S.: Bai, bai. Eta batzutan, batzutan lagaten oskun /latezkun/ e, esaten eben ze, hau, bertako direktori zan Don Pedro, gixon handi-handixe. Edo neu txikixe edo, jo- ta... [ikusten neban gizon haundi]. Ta euan ati bat demasa -ontxe be han da marki-, demasa ati, ate handixe. Eta, ba, ha zati

bat irai ta benga, barrure.

- Laguna: Neuk rekuerdo eskasa, [...]

- S.: Eta, ba, [segi] hori, joten giñanin, ba, gu... eguenetan ez gendun eukitxen klaseik mojetan eta, ba, haraxe. Erun jateku bittartin ta aume ikustea. Ama domeketan joten zan, domeka arratsaldetan, bezperak ein ta gero. Eta gu, ba, eguenetan. Eta esaten dotsutena /esatetzutena/, ba, zan guri sinpatixi oskun harek gixonak. Bai, sinpatixi edo sekule ez oskun / eztozkun/ e...

- Laguna: Malik baiko [...].

- S.: Batzuai murruskari edo... baiñe guri... txikixak be bagiñan.

- Eta zuek, umiak bakarrik joaten ziñien?

- Bai, arratsaldin bai, geu halaku hartu ta, jolin. Eta eoten zin garitetan... zin... guk jakin be ez, soldau euazenak zin harek ba. Baiñe gu pentsaten... geutzako guardia zibilak eta horrek eta zin ba... Eta guk pentsaten gendun harek be zinela... eta jo-ta joten giñan bertaa arte bide guztin baztar-baztar-baztar-baztar-bazterretik horra arte, Arbelaitzea arte. Arbelaitzen baserrixan e, halakun sartu ta txixe edo ein biher bagendun / enbibagendun/ edo zeoze, edo ure edo eran ta abante, kartzela. Eta, ba, guri, ba, esaten dotsut /esatetzut/ eta, holanik iñoiz laga oskun /lagazkun/ beraz urteten kanpoa be, ze harek danak eoten zin barrun. Baiñe ixango zan iual egun berezixak edo, ez dakit /eztai/ nik. Baiñe nik dakat hori oroimena, ba, zelan beraz pasietan be ibili ixan giñana.

- Eta aipatzen eban Berrizko beste andra batzuk han euezela eta hori? Ez sekule be...

- S.: Ez, nik ez dot holako...

- Igual ezagutu be ez...

- S.: Igual ikusi be ez, beste pabelloin eta ezautu be ez.

- Laguna: Horrei andrai ez otsen /eztotzen/ lagaten ta.

- S.: Eta jakin, jakin ez. Jakin ez. Ze pentsaten dot eoten zinela, ba, sartu zerin, zein da hori euran e...

2. Saturrarango kartzelan ume asko hiltzen zen

- **Erref:** OND-040/005
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:09:57. **Bukatu:** 00:12:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Saturrarango kartzelan ume asko hiltzen ziren, hilkutxa zuria ateratzen zutenean jakiten zuten. Mutrikun lurperatzen zituzten. Anekdotak bat kontatzen du, Benantzirentzako zen gaztaia jan zuenekoak.</p>

Transkripzioa

- Sorkunde: Eta gu joten [giñan] gero... Harek urten ta gero, ba, klaro, bixkat zaharrauk; eta, ba, joten giñan eta esaten dotsut /esatetzut/, gure kaleko, hau, Dolores Karpinteruana gero, joten giñan gure kaleko, bueno, esaten dotsut /esatetzut/, mojeta joten giñan guztik. Hasi neu baiño handixauatik eta haunakoxe arte joten giñan; danok. Baztar-baztarretik jun ta harek kanpun gelditzen zin. Eta gu igual barrun geuazen bittartin igual ataten eben /atateben/, honek, kaja zurixak, umik hildde ta. Ta Amaia Uribe

da...

- Laguna: Horixe esatera nixun.

- S.: Amaia Uribe da ni baiño 3 urte gaztia, eta aurreko baten esan ostan / esastan/: "Sorkunde, akordaten zaz harek, hainbeste kaja?", "Akordako ez na ba, zemat ume hildde".

- Laguna: Ha ate handixe honek esan dabena?

- S.: Orduntxe iraitten eben /iraitxenben/.

- Laguna: Eta marki da ondiokan.

- S.: Orduntxe iraitten eben /iraitxenben/.

- Laguna: Ha ate handixe iraitten eban /iraitxenban/ orduntxe. Ta ikasi gendun: "Ene! Ontxe be hilddakue dakarre".

- S.: Bai ee, zein da hori? Bai, emakumik be bai, baiña kaja zurixak emoten oskun /emotesku/ geuri... uminak.

- Eta, nora erueten ebezan enterretan?

- S.: Mutrikure edo, Mutrikure-edo erungo eben.

- Laguna: Batek baaki.

- S.: Karo, Gipuzku danetik ha, nahitte Ondarrutik bertan eon. Eta, eee... zein da hori? Ba, esaten dotsut /esatetzut/, ontxe be akorda eitten da. "Akordaten za?". Eta esaten dotsut /esatetzut/ "Akordaten za neuaz [...]?"... Gu, Dolores Karpintero ikustea juten giñanin, kartoizko hori lotute halakun, kapazue itxitte e, lotute dana. Eta... eta baten, ba, holantxenik, hau, hau belantxi dana, ta, ba, amak eitten eban /etxenban/ plazan, gaztai [erosi]. Ta niri gaztai asko gustaten gaztan ba. Ta eitten eban /etxenban/, salan eoten zan, komedorin, frutero baten [...] gaiñin, eoten zan gaztai, ba, sikatzen. Eta sikatutakun, bixkat sikatutakun, bixkat hartutakun, ba, eruteko. Ta ni gaztaiai [...], ta, baten, ba, ondiokan ama ezkondu baik, ba, zemat urte eukiko neban? 9 urte ero. Ta... 8-9 urte. Inbidixi ta jo-ta hartzen dot kutxarilli, ondiokan ez euan hain gogorra, ta azpittik... dana. Dana. Jo-ta azpittik gaztai guzti jan.

- Laguna: Azala laga bakarrik, kar, kar, kar.

- S.: Ta amak ipini eban /ipiniban/ inddarrak, eta beran sakramentukin-ta ixaten zan ta fruti ta gaztai ta holakoxe gauzak. Eta, ba, jun zanin hartzea neure gaztaioi, ba, pixoik be ez, ta beatu eban eta ez ei xeban preguntateko be... premiñaik be ez euan. Esan eban "Ba! Sorkunde", neu nitxan gaztaieri ta. Eta orduntxe esan ei xeban amak "Hauxe da marki - biharra eitten eban /etxenban/, alargundute, ta biharra... baakixu. Ta-, neure umiai ukatzen dotsatena /ukatetzatena/ eruten dotsat /erutetzat/?". Ta ordun eitten ei xeben txandaka, txandaka: batzutan geuri, ta beste batzutan halaku. Ta tira, [lantzin] jaten gendun ordun. Baiñe, klaro, ezin. Eta gero gure ama, esan dotsut /esatzut/, ba, ezkondu ein zanela. Ta ondiokan ha ezkundute be, ba, eongo zan, ba... Ez, ordurako urtenda... Bartzelonan euan bera; Bartzelonan euan. Eta gero, ba, Bartzelonatik etorri zan aitziaz.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com